

211547

# KARISMA

2022KO MAIATZA


ANDRE MARIA LAGUNTZAILEAREN ALABAK -  
SALESTARRAK: 150. URTEURRENA

## “Zuri fidatzen dizkizut”



**ANDRE MARIA LAGUNTZAILEAREN  
ALABEN INSTITUTUA**

# Jainkoaren ametsa neska gazteentzat



**G**u, Maria Laguntzailearen Alabak, **Mariaren** familia erlijioso bat gara. Jainkoak **San Joan Boscori** goiargitutako proiektu batetik sortu ginen, eta, ondoren, **Santa Maria Domenica Mazzarello**k sormenezko fideltasunez gauzatu zuen proiektu hori. Izenak gure nortasuna definitzen du: Don Boscok nahi izan zuen bezala, Maria Laguntzailearenganako esker oneko monumentu bizia izatea. Ondo erakusten du Institutuak **Jesusen** eta Elizaren ama Mariarekin duen lotura berezia. Haren bidez, “ardura hartzeko” pedagogia bizi dugu; hau da, pertsona bakoitza “zaintzekoa”: batik bat, haurrak eta gazteak. Eta horretarako hainbat hezkuntza-ekimen eta -plataforma abiarazten ditugu, betiere bizitzaren alde jarduteko eta bizitza sustatzeko. Maria Laguntzailea gure inspirazio-iturria da, eta gidari dugu Hark agindutakoa egiteko gai izan gaitzen, Kanako ezkontzetan bezala.

Emakume eta erlijioso garez gero, Jainkoaren maitasun prebentiboaren eta probidentearen testigantza emateko deia jaso dugu, gure bizitzak eredu izanik. Jainkoaren gazteenganako maitasunaren ikur eta adierazpen izan nahi dugu.

150 urte igaro dira, eta pasioari eusten jarraitzen diogu, eta Ama Birjinak Santa Maria Mazzarellori egindako eskariari –“Zuri fidatzen dizkizut”– erantzuna ematen. Hori dela-eta, bost kontinenteetako gazteei beren bideetan laguntzen diegu kristau on eta herritar zintzo bihurtu daitezen. Salestarren misio karismatikoa agerian jarrita, gizarte-kultura hezkuntzaren bidez eralda daitekeela sinetsita gaude.

## FUNDATZAILEAK

### MARIA MAZZARELLO

Jainkoaren hariari jarraikiz ehundu zuen bere bizitza. Bai Morneseko mahastietan gelditu gabe egiten zuen lan oparoan (herrixka hartan jaio zen 1837an), bai La Valponasca etxadiaren baretasunean. Haren familia bertara joan zen bizitzera zenbait urte geroago. Egunero egiten zuen otoitza, eta bere leiho txikitik zuzentzen zion begirada, bai eta bihotza ere, parrokiako sagraioan zegoen Jesusi.

Halaxe bizi izan zituen haurtzaroa eta nerabezaroa, bere baitan Jainkoaren zentzu sendoa garatuz, eta bere burua Haren esku uzteko gogoia indartuz. Mariaren irrika horri bertako apaiz **Pestarino** jaunak lagundu zion tinko eta sentikortasunez. Mariaren bizitzako haria hausteko zorian izan zen, 23 urte zituela, Pestarino jaunak tifusak jotako senitarteko batzuei laguntzeko eskatu zionean; izan ere, emandako laguntza eskuzabalaren ondorioz, Maria ere tifusaz kutsatu zen.

Hilabete luzetako susperraldia izan ondoren, **Main**, etxeko giroan esaten zioten bezala, osatu egin zen, baina ez zen sekula berriz ere izango mahastiko jornalariak atzean utzi ohi zituen langile gaztea. “Eta orain zer egingo dut?”, “Zer nahi duzu nigandik, Jauna?”. Ama Birjinak bere ahotik



## SANTA MARIA MAZZARELLO

• 1837

Maria Mazzarello maiatzaren 9an jaio zen Mornesen (Italia)

• 1860

Festa-egunetako otoizlekua eta joskintza-lantegiak abiarazi zituen

• 1864

Don Bosco ezagutu zuen hark Mornesera egindako bisitan

• 1872

Andre Maria Laguntzailearen Alaben Institutua sortu zen

• 1881

Maiatzaren 14an hil zen

## SAN JUAN BOSCO

• 1815

Joan Bosco abuztuaren 16an jaio zen Turinen (Italia)

• 1841

Ekainaren 5ean apaiz ordenatu zen

• 1859


San Frantzisko Saleskoaren Elkartearen sortu zen maila ofizialean

• 1875

Azaroaren 11n Argentinarako lehen misiolari-espeditzioa egin zuten

• 1888

Urtarrilaren 31n hil zen



eman zion erantzun xaloa: “Zuri fidatzen dizkizut”. Eta, orduz geroztik, hari horrek gidatu izan zuen haren bizitza osoa. Jainkoak harentzat zuen ametsa neskatilei on egitea eta haiek Jesusengana hurbiltzea zela jabetu zen, eta bere lagun bereizezin Petronilarekin batera gauzatu zuen plana. Don Boscok bere egintzak Turinen abiarazi zituen aldi berean, Mariak bere joskintza-lantegia eta otoizlekua ekinarazi zituen Mornesen. Biek bat egin zutenean jabetu ziren pieza bereko bi oihalki zirela; hau da, neska-mutil gazteen bizitzetan eragiteko xedea zuen Jainkoaren ametsa zirela biak. Horretarako sortu zuten Andre Maria Laguntzailearen Alaben Institutua.

Mariak bultzatuta, Morneseko lehenengo salestar komunitatearen ezaugarri nagusia familia-giroa zen; horrez gain, aintzat hartzen zuen Jesusen presentzia Eukaristian, bai eta behar handienak zituzten neska gazteen aurpegiaren ere. Haren leloetako bat zen besteak hitzez soilik ez maitatzeko, ezpada ekintzen bidez.

Ama Nagusi gisa, ahizpa eta hezitzaile berriak modu trebean hezi izan zituen, eta bizitza espiritualeko maisu bikaina izan zen. Alaitasun barearen karisma zuen, eta emakumearen heziketan aritzeko grina. Neska gazteen beharrak larrienak eta premia-koenak ziren lekuetan egoteko asmo argia erakutsi izan zuen beti amaiera arte, haiei

laguntzeko erantzun zehatza, egokia eta ahalik eta integralena emateko asmoz.

Institutu berria azkar hazi zen: 1877an Uruguaira abiatu ziren lehen ahizpak, eta Espainiara 1886an iritsi ziren. Maria Mazzarello 1881eko maiatzaren 14an hil zen Nizza Monferratoren (Italia), eta haren bizipenek gogorarazten digute santutasuna zilegi dela, eta egunerokoan gerta daitekeela. Hau da, ez gara santu jaiotzen, baina santu bihurtzen gara, baldin eta Jainkoak gure egunerokoan egiten dituen deiei erantzuten badiegu, baldin eta Hark gure ondoan jartzen dituen pertsoneri lagundu diezaguten uzten badiegu, eta baldin eta Jainkoarekin hitz egiten badugu otoitzaren bitartez. Elizak emakume hezitzailearen eta maisu espiritualaren eredutzat hartzen du. 1938ko azaroaren 20an beatifikatu zuten, eta 1951ko ekainaren 24an kanonizatu.

## JOAN BOSCO

Giovanni Melchiorre Bosco nekazari-familia oso pobre batean jaio zen, 1815eko abuztuaren 16an, I Becchin, Castelnuova d’Astiko baserri batean (bertan bizi zirenak Biglione familiaren peoiak ziren). Haren ama, **Margarita Occhiena**, seme bat zuen **Frantzisko** alargunarekin ezkondua zen; senar-emazteek beste bi seme izan zituzten ondoren, Jose eta Joan bera. >>

» Boscotarrek oso gaztetatik lan egin behar izan zuten landan, baina Joanez eskolara joan ahal izatea lortu zuen, nahiz eta horretarako bost kilometro egin behar izaten zituen oinez. Eskola ordaintzeko lan egiten zuen aldi berean. Nekaezina izanik, beti zerbaitetan ari zen; gustuko zituen antzerkia, musika eta prestidigitazioa, eta “Alaitasunaren Elkarte” izeneko gazte-mugimendua sortu zuen.

20 urte zituela, Chieriko Elizbarrutiko Apaiztegia sartu zen, eta 1841ean apaiz ordenatu zen, Turinen. 26 urte zituen **Don Jose Cafasso** –gaur egun Santua da– bere konfessore eta zuzendari espirituala ezagutu zuenean. Hark honako aholku hau eman zion: “Ibil zaitez, eta errepara iezaiozu zure inguruari”. Hiriko aldiriak sekulako desolazio-guneak ziren landa-eremutik etorri berri ziren haur eta gazteentzat. Cafassok lagunduta ezagutu zituen kartzelak, eta bertan ikusitakoak sakon hunkitu zuelako, erabaki argia hartu zuen: “Ezinezkoa eta gehiago egingo dut mutikoak hona irits ez daitezen”.

1841eko abenduaren 8an kaleko lehen mutila hartu zuen, **Bartolome Garelli** izenekoa. Horixe izan zen egintza salestarraren abiapuntua Valdoccon (Turin), festa-egunetako Otoizlekuarena alegia: horrek berariazko erantzuna eman

zion abandonatuta eta arriskuan zeuden gazte pobreen beharriari. Valdocco etxea izan zen gazteentzat, bai eta patioa, eskola eta parrokia ere. Bertako hezkuntza-metodoa Prebentzio Sistema izan zen. Haren egintzari jarraipena emateko asmoz, 1859ko abenduaren 18an, San Frantzisko Saleskoaren Elkarte - Salestarrak sortu zuen.

Maria Mazzarelloekin batera, Andre Maria Laguntzailearen Alaben Institutua sortu zuen. Horretaz gainera, gazteen hezkuntza-egintza babesteko eta iraunarazteko, Laguntzaile Salestarrak sortu zituen; hala, Elizaren apostolutza laikoaren forma berriak aurreratu zituen. Era berean, Maria Laguntzailearenganako Jaieradunen Elkarte sortu zuen, Turingo santutegiari lotuta, bere egintza osoan Ama Birjinaren presentzia aintzatetsi zueneko adierazgarri.

Don Boscoren egintza azkar hedatu zen, eta Utrerara (Espainia) 1884an iritsi zen. 1886an, Bartzelona bisitatu zuen. “Gazteen apostolua” 72 urte zituela hil zen. Haren heriotzaren mendeurrenean, Joan Paulo II.a aita santuak “Gazteen Aita eta Maisu” izendatu zuen. 1934an kanonizatu zuen.

Bizitza eman zieni eskaini zien bere azken esaldietako bat: “Esan iezaiezu nire mutilei zain izango nautela Paradisuan”. ■

## SANTUTASUNA EHUNTZEN


Jainkoak bere modura ehuntzen du historia. Horixe erakusten digute lau emakume hauen bizitzek: hiru Maria Laguntzailearen alabak dira eta bestea ikasle salestarra. Beren egunetako hariekin ehundu zuten, xumea eta egunerokoa den horretan, Jainkoaren ametsa beren baitan.

**M<sup>a</sup> Carmen Moreno (1885 - 1936)** irakasle-ikasleen artean apostolutza eraginkorra egin izanagatik da aintzatetsia. Valverde del Caminoren (Huelva) etxeko zuzendari izateko hautatu baitzuten, **Eusebia Palomino** santutasunaren lekuko izan zen (1899 - 1933). Eusebia gaztea bertara bidali zuten sukaldari aritzeko, baina haren espiritualtasunak laster erakarri zituen neskatokak; eta helduek, apaizgaiek zein apaizek aholkua eskatzen zioten. Haren arrakastaren sekretua bakarra zen: ohikoa zena ezin hobeto egiten saiatzea. Eusebia Ahizpa hila zen Carmen Ahizpa Bartzelonara bidali zutenean. Bertan bizikide izan zuen Jaunak Espainiari oparitu nahi izan zion hirugarren emakume salestarra: **Amparo Carbonell (1893 - 1936)**. Sukaldaritzan eta baratzea zaintzen egindako lan xumeagatik eta eskuzabalagatik nabarmendu zen. Espainiako Gerra Zibila hasi zenean, 1936ko uztailean, ahizpak Italiarantz abiatu ziren, baina Amparo eta Carmen Ahizpek bere burua eskaini zuten gaixorik zegoen beste ahizpa bat zaintzen gelditzeko. Irailaren 1ean preso hartu zituzten, eta egun batzuk geroago, erlijiosoak zirela ukatu ez zutelako, fusilatu egin zituzten.

Garai beretsuan, 11.000 km-ra, **Laura Vicuña** nerabeak (1891 - 1904), Junín de los Andeseko (Argentina) ikasle salestarrak, familiaren egoera zailaren zama bere gain hartu zuen, eta, halere, bere gaztaroa sendotasunaren eta ontasunaren hariekin ehundu zuen, bere burua ahaztuta, bai eta bizitza emateko sakrifizioa eginda ere. Horiek guztiak beatak dira, santutasunaren ereduak, alegia. Jainkoaren hariek halaxe lotzen dituzte bizitzak elkarrekin, guri ondare ederra uzteko, eta egunerokotasuneko gauza xumeetatik datorren santutasuna aintzat hartzeko. Salestarren espiritualtasuna eta pedagogia santutasunaren hazia direlako testigantza dira.







## Etorkizunari irekitako leihoa

Zer zirrargarria den 1872ko abuztuaren 5a oroitzea! Egun hartan hamar neska gazte ausartek eta eskuzabalek, **Maria Mazzarello**ekin batera, **Don Boscok** Maria Laguntzaileari egindako omenaldi bizi izateko abenturari ekin zioten!

Graziatzko gertakaria izan zen: gure Maria Laguntzailearen Alaben Institutuaren sorrera. Hura 150 urte geroago gogoratzea, kayrós bihurtzen da; hau da, Espiritu Santuari gu eraldatzen utz diezaiozun egiten diguten deia. Izan ere, gure komunitateak haurrentzako eta gazteentzako “bizitza berriaren sortzaile” izango dira soilik, baldin eta harengandik edaten badute.

Institutuak hiru urteko laudorio-aldia bizi izan du, esker oneko egintzako, hezkuntza- eta bokazio-bizitasun berrikoa, Ama Mazzarelloren hitzek argituta: “Animo! Aurrera jarraitu dezagun bihotz handiarekin eta eskuzabalarekin”.

Pandemiak eragindako ziurgabetasunean murgilduta, gure XXIV. Kapitulu Orokorra egin ahal izan genuen: 95 herrialdetako 172 kapitularrek beren maletetan kargatu zuten aurrekaririk gabeko osasun-krisi honek eragindako

mina, bai eta horrenbeste familia eta herri mehatxatzen dituen krisi sozialak eta ekonomikoak eragindakoa ere. Hori dela-eta, leku berezian zeramazkiten, bihotzaren erdian, etorkizuna kolokan ikusten duten haurren eta gazteen desirak. Kapitulu berria bat eginik, etorkizunari beste leiho bat ireki genion.

Probidentziak bidean gurutzatu nahi izan ditu 150. urteurrenaren ospakizuna eta XXIV. Kapitulu Orokorra. Bi ekitaldietan Andre Mariak berebiziko garrantzia izan du. Batetik, **Mariak** Kanan egindako hitzaldia izan zen kapituluaren gai nagusiaren muina zehazteko erabilitako testu ebanjelikoa. Bestetik, “Maria etxe honetan ibiltzen da” izan du lematzat prestakuntzako hirurteko honek, Don Boscok Nizza Monferratoren etxeko Maria Laguntzailearen Alabekin izandako azken bileran adierazitakoari helduz: “Ama Birjina etxe honetan paseatzen da, eta bere mantuarekin babesten du”. Gaur egun, “etxe” hori gure mundu salestarra da; hau da, gure misioa gauzatzen dugun leku oro.

Kapituluko Batzarrak hiru egiteko onartu ditu, eta **Chiara Cazzuola** Ahizparen eskutik, Ama Orokor berria izanik,

horiek aurrera eramateko konpromisoa hartu dugu: etengabeko prestakuntzan egotea; misiolari sinodalitatean aurrera egitea; eta pobreen eta lurraren oihua entzutea, sarean izanik, eta ekologia integralaren ikuspegia aintzat hartuta. Presentziaren profezia ardatz duten egitekoak dira.

Presentzia Kristorengan errotuta dago eta arretaz entzuten du; eskuragarri dagoen presentzia da, itxaropenezko begirada batekin, bizitzaren eta bakearen kulturari erreparatzeko. Besteekin ibiltzen den presentzia da; laguntzen duen presentzia; sormenezko presentzia bokazioko eta sinodoko bidean. Komunitate-presentzia da “irteeran” eta sarean; presentzia fededuna da, ebanjelizatzailea, eta gaur egungo aniztasuna barne hartzen duena.

Mainen leiho txiki hura bezala, zeinetatik Jainkoaren ametsak amesten zituen, halaxe zabaltzen da gure aurrean etorkizun hau. Mariaren presentzia biziaren eta dinamikoaren ziurtasuna gure alde dugu; izan ere, salbazioaren historian beti izan da amaren babesa ematekoa eta prebentiboa. Jada etxe guztietan ospatzen ari den ziurtasun pozgarria da hori. ■

## Karisma bost hitzetan

### Presentzia

“Presentzia-laguntza” gure karismaren binomioa da, eta pedagogia salestarraren funtsezko elementuak, ukaezinak horiek, bateratzen ditu. D. Boscorentzat eta M. Mazzarellorentzat, presentziak honako hau adierazten du: “begirada arretatsua”, hurbila, abegikorra, entzute sakona, gazteen arteko “benetako presentzia fisikoa”, haiekin ikasgeletan, pasilloetan, patioetan egotea (beren bizitza gertatzen den tokietan, alegia). Presentzia hezitzaile horrek harremanak indartzen dituela sentitzen dugu, eta haiek positiboagoak egiten direla. Presentzia haien eguneroko esperientzietan eta une handietan laguntzea da; fedearen hazkuntza-prozesuko bidea elkarrekin egitea; eta beren historiaren protagonistak izan daitezen laguntzea.

MENCHU GARCÍA, FMA. MADRIL

### Maria

Salestarren Familian, eta karisma salestarraren alderdi femeninoaren partaide garen norbanako bakoitzaren bizitzan, beti dago Jesusen ama; eta, hori dela-eta, Maria bere presentzia prebentiboan ezagutzen dugu, eta, Kanako ezkontzetan bezala, bere presentzia “laguntzailean”. Gabezia eta pozez jositako istorio hau, gutako bakoitzaren istorioa da, bai eta guk lagundu diezaiegun bidean jarri dizkiguten gazteen istorioa ere. Mariarena bezala, gurea ere presentzia esanguratsua, alaia, erraza eta erabilgarria izatera deituta gaude. Bidean gaudela sentitzen dugu beti, eta prest gaudela “nire baitan gerta dadin” bizitzeko.

MARÍA DEL MAR GARCÍA, FMA.  
JEREZ DE LA FRONTERA

### Alaitasuna

Don Bosco izan zen kristau-bizitzan alaitasunaren garrantzia ondoen gorputzen jakin izan zuen santua; horren garrantzitsua zen harentzat non karisma salestarraren ardatz egituratzaile bihurtu zuen. Hark ez zuen alaitasuna sentimendu iragankortzat jotzen, ezpada bizitzan egindako aukeratzat. Don Bosco aldarrikatzen zuen santutasuna beti alai egotean datzala; hau da, bizitzari itxaropenez beteriko begiekin begiratzean, eta Jainkoak baldintzarik gabe maitatzen gaituelako lasaitasunez bizitzean. Horregatik ere bada Don Bosco gazteen santua. Izan ere, ondo zekien gazteen bihotzak bereganatzeko modurik egokiena haien pozak partekatzea zela, alaitasuna baita gaztetasunaren oinarritzko legea.

CARMEN BELÉN LEAL, SEKULARRA.  
SEVILLA

### Familia-espirtua

Familia-espirtua karisma salestarraren jatorrian dago, eta gure hezkuntza-sistema, spiritualtasuna eta karisma horretan oinarritzen dira. Don Boscok eta Ama Mazzarellok beren balioak familiaren baitan barneratu zituzten, eta beren hezkuntza-erakundeetarako “etxe” izena aukeratu zuten, bertan “familia-espirtua” bizi zedin. Adiskidetasunaren, afektuen eta harreraren gunea da familia, eta bertan ikasten da elkarrizketaren eta pertsonen arteko komunikazioaren artea. Hortik sortzen da hezkuntza-girorik onena familian eraikitzen delako uste osoa; non sentimenduak, jarrerak eta balioak betiere adibidearen bidez komunikatzen diren.

JESÚS CALVO, SEKULARRA. SALAMANCA

### Izaera prebentiboa

Don Boscok kartzeletako gazteei egindako bisitak haren estiloaren oinarriak ezarri zituen: “Mutil haiek kartzelatik kanpo lagunen bat izango balute, ez al litzateke gutxituko kartzelara itzultzen diren mutilen kopurua?”. Don Boscoren Prebentzio Sistema gaizkia saiheste hutsaz baino haratago doa; izan ere, bizi-proposamen bat da, bizitzaz beteriko eta proposamenetan aberatsa den hezkuntza-giroa eskaintzen duena, gizabanakoak ongira bideratzen dituen esku adiskideen bitartez. Hezitzeko metodoa da, bai eta spiritualtasuna ere, Jainkoak Harekin bat egin dezagun opari gisa eskaintzen dizkigun gazteak hartzeko aukera ematen diguna.

MARIBEL GÓMEZ, FMA. LAS PALMAS KANARIA HANDIKOAK





## Elkarrekin egiten dugu bidea

Sinodalitatea Elizaren oinarrietako bat da: ez dagokie soilik lehen komunitateei, ezpada “Jainkoak hirugarren milurteko Elizarengandik espero duen bidea” da. Institutu gisa, hasiera-hasieratik izan du sinodalitate-estiloa. Maria Mazzarellok Institutua sortu ondorengo lehen asteroko hitzaldiari “hasiera eman zion esanez etxeko ardura ez zuela hark soilik izan behar, eta Ahizpa bakoitzak lagundu ziezaiokeela eta aholkua eman; horrenbestez, Ahizpa bakoitzak beraren ikuspuntuak eta iritziak ezagutarazteko beharra zuela, edo horiek adierazteko eskubidea, etxea arlo guztietan hobetzeko”. Ildo horrexerri jarraikiz bizi gara komunitatean eta elkarrekin egiten dugu bidea, misio partekatuan, familia salestarra izanik, eta karisma Ebanjelioa bizitzeko modutzat duten sekularrekin batera.

### ELKARREKIN BIZITZEA ETA LAN EGITEA

CONCHI MUÑOZ, FMA, VALENTZIA

“Jaunaren Izenean elkarrekin bizitzea eta lan egitea...”. Hitz horiekin hasten dira gure Konstituzioetan ahizpen bizitzari buruzko artikulua. Jesusek proposatzen digun Erresuma hori elkarrekin amestea, eta horri bizitza ematea. Elkarrekin: hori da hitz gakoa eta zentzuz betea. Baina zer da elkarrekin bizi behar duguna?

**Familia:** arrebek elkarri egiten dioten baldintzarik gabeko harrera. Familian baloratzen, maitatzen eta eusten zaituztela sentitzen duzu. Gune horretan gorpuzten da maitasuna; laguntasuneko erlazioak bizitzen dira; eta alaitasuna arnasten den airea da.

**Jainkoarekiko eta ahizpekiko komunioa:** egunero partekatzen dugun Hitzak eta Eukaristiak, eta konpromisotzat dugun barkamenak, zilegi egiten dute ahizpen arteko eguneroko mirari hori.

**Testigantza:** ez dugu gure segurtasunean itxita bizi behar, beste muturrean, gure egitekoa atea zabaltzea da, bizitzak eta mahaia partekatzea, gazteei entzutea eta abar.

**Elkarrekin bizitzea eta lan egitea...** garen hori oinarri izanik, gure ahulezia eta aberastasunekin, fedea erdigunean jarrita. Elkarrekin, sinodalitatean!

### SALESTARREN DNAN

RAÚL FERNÁNDEZ, LAGUNTZAILE SALESTARRAK, MADRID

“Sinodalitatea” eta “Misio partekatua” nire hiztegiaren darabilzkidan gaur egungo hitzak dira. Ez zaizkit ezezagunak; izan ere, betidanik bizi izan naiz salestarren giroan murgilduta, ikasle gisa, Salestarren Gazte Mugimenduko kide gisa, animatzaile gisa, eta orain Salestar Familiaren barruan. Nik jakin ez arren, bi adierazpen horiek, Don Boscoren eta Ama Mazzarelloren garaitik salestarren DNAk berezkoak dituenak, garrantzitsuak izan dira niretzat. Gogoan dut nola prestaketa-bileretan, jarduerak proposatzean eta horiek gauzatzeko unean, salestarrek animatzaileak kontuan izaten zituzten; eta ez hori bakarrik, protagonismo osoa ere haiei ematen baitzieten. Sekularrak eta kontsakratuak helburu beraren alde elkarlanean: “Gazteen ebanjelizazioa eta salbazioa”. Protagonismoa merezi zutenek hartzen zuten: hartzaileek. Atentzioa ematen zidan nola guk baino prestakuntza eta gaitasun handiagoa zuten pertsonak arretaz entzuten ziguten, eta gure iritziak eta proposamenak aintzat hartzen zituzten. Gaur egun espiritu eta jarrera hori barneratuta bizitzen jarraitzen dut. Denok beharrezkoak garena sentitzen dut, eta elkarlanean aritu behar dugula, elkarren osagarri izanik. Sekularrak eta kontsakratuak bat eginda, Don Boscok arrosa-arantzen ametsean amestu zuen bezala. ■

#### FMA

- Komunitateak: 54
- Maria Laguntzailearen Alabak: 548
- Misiolariak Afrikan, Amerikan eta Asian: 42

#### SALESTARRAK LAGUNTZAILEAK (LAGUNTZAILE SALESTARRAK)

- FMAren toki-zentroak: 21
- Promesadun Laguntzaile Salestarrak: 407
- Formazioan diren Laguntzaile Salestarrak: 117
- Don Bosco Egoitzadun etxeak: 6

#### MARIA

#### LAGUNTZAILEAREN ELKARTEA (MLE)

- FMA etxeak MLÉrekin: 34
- Elkartekideak: 4.405

#### IKASLE OHIEN ELKARTEA

- Federazioak: 4
- Ikasle ohien Elkarteetako etxeak: 30
- Elkartekideak: 780



# Elkarrekin hazteagatiko alaitasuna

## ZENBAKITAN

- 42 ikastetxe eta Goi Mailako Ikasketa Zentro 1
- 10 Autonomia Erkidego
- 1.460 irakasle
- 21.100 ikasle

**G**ure ikastetxeek oinarri dituzte Don Boscoren ekimena, eta hark eta **Ama Mazzarello** argi definitutako pedagogia eta heziketa-estiloa zuten Espainiara iritsitako lehen sailetarrena.

Gure sortzaileen hasierako bizipenak gure praktika pedagogikoa bermatzen du gure ikastetxe guztietan, eta Maria Laguntzailearen Alaben ikastetxe gisa dugun heziketa-misioa bideratzen du.

Gaur egun, 42 ikastetxe ditugu Espainian, eta gure hezkuntza-eskaintzak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, eta Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketa hartzen ditu. Guzti horiek sistema prebentiboa dute muinean, haur eta gazteen beharrei erantzuteko. Horiez gain, Don

Bosco Unibertsitate Zentroa ere badugu, Pedagogiako, Irakasle Ikasketako eta Gizarte Hezkuntzako graduak eskaintzen dituena.

Maila pedagogikoan eta pastoraltzakoan etengabe eguneratzen ari diren gure ikastetxeen nahimena bikoitza da. Batetik, pertsonaren eredu kristauari jarraikiz, heziketa integral eta hezkuntza-kalitate bikaineko zentro gisa aintzat hartzea. Eta, bestetik, ikasleek, sailetarrek, hezitzaileek eta familiek elkarrekin hezkuntza-komunitate bat eraikitzea; ikasleak beren hezkuntza-prozesuaren protagonista izateko aukera emango dien familia-harremanaren antzeko giroa, alegia.

Konpromisoa, karismarekiko identifikazioa eta pertenezko zentzua gure ikastetxeetako hezitzaileen nortasunaren oinarritzko osagaiak dira. Prestakuntza- eta laguntza-prozesu sistematiakoak prestatzen ditugu (barne hartzen dituzte Erakundearen misioa, ikuspegia eta balioak partekatzeko uneak), haien garapen pertsonala eta profesionala ahalbidetzeko.

Gure balio-proposamenak, “Elkarrekin hazteagatiko alaitasuna” izenekoak, gure hezkuntza-estiloaren eta karisma sailetarren espiritua islatzen du, eta gure nortasunaren mamia zehazten. Alaitasuna, ezaugarri karismatiko gisa (“beti alai izatea eta egotea”), gauzatzen dugun hezkuntza-egintzaren bultzatzaile nagusia da. Egintza hori komunitatean egiten dugu, elkarri hazten lagunduta (sare-egituran), haurrekin eta gazteekin batera bidea eginez. ■

DON BOSCO UNIBERTSITATE ZENTROA (MADRIL). ARGAZKIA: JESÚS G. FERIA



## Avanti, sempre avanti

**D**uela 14 urte hasi nuen abentura Alacanteko Sailetarretan, Lehen Hezkuntzako irakasle gisa. Bertan hazi izan nintzen, eta, ikasturte honetatik aurrera, bertan garatzen ari naiz nire misioa Haur eta Lehen Hezkuntzako burutzaren eta zuzendaritzaren bidez. Bizitzaren, pertsonen eta hezkuntzaren maitailetzat dut nire burua. Zorioneko sentitzen naiz fedea inguru sailetarrean osatu dudalako: **Don Boscoren** eta **Maria Mazzarelloren** karismaren begiradaren bidez **Jesus** ezagutu izanak, inspirazio-iturri bihurtu ditu hezitzaile gisa dudana bokazioarentzat. Opari hutsa da haien urratsei jarraitu ahal izatea.

Misio berri hau esker on sakonez eta Jainkoarenganako erabateko konfiantzaz bizi dut. Izan ere, badakit Hark gidatzen duela nire bizitza,

eta erosotasunetik aldentzen nauela, inoiz pentsatuko nukeena baino haratago irits nadin; eta badakit nire aldeko apustua egiten duela egunero, eta zailtasunei aurre egiteko indarra ematen didala.

Batzuetan, ez da erraza izaten, egun batzuk besteak baino zailagoak baitira; baina orduan Jainkoarekin dudana harremanari erreparatzen diot, nire burua islatzeko ispilua baten bila, naizena xalotasunez, apaltasunez, askatasunez eta gardentasunez ingurukoak erakusteko. Hark nigan jarritako dohain guztiak ikastetxearen zerbitzura jartzen saiatzen naiz: ilusioa, sormena, berrikuntza, alaitasuna, bide berrien bilaketa, etengabeko prestakuntza, bai eta erotasun pixka bat ere. Merezi du haren maitasunaren testigantza izatea.

**Paula González, zuzendari pedagogikoa, Alacant**





LAURA VICUÑA EGUNEKO ZENTROA (MISL) - MARIA LAGUNTZAILEA FUNDAZIOA - TORRENT

**GIZARTE-  
ERAKUNDEAK**



## Pertsona zaurgarrienen artean egotea

**X**IX. mendeko Italiako gazteek, batez ere bazterkeria- eta abandonu-egoeran bizi zirenek, Don Boscoren eta Ama Mazzarelloren bihotzari dei egin zieten. Jainkoaren deiari jarraikiz, eta ahulenen hurko bihurtuta (FT, 81), gure sortzaileek Jainkoaren begirada errukiorrarekin bat egin zuten.

Ordutik gaur arte, Don Boscoren eta Ama Mazzarelloren maitasun preferente horrekin berarekin, zaurgarrienei bideratzen diegu gure ahalegina; batik bat, hainbat arrazoi direla medio, beren gogoaa asebetetzeko aukera gutxiago duten, edota arriskupean diren, neska gazteei (FMA Konst., 65. art.).

Hainbat proiektu-moldek (familia-etxean banakako hezkuntza-proiektuak, gizarte- eta hezkuntza-proiektuak, adinez nagusiak diren gazteen emantzipazio-ibilbideak, formakuntza-zentroak, gizarteratze- eta laneratze-proiektuak), ikuspegi antropologiko kristaua duten pastoraltza-proposamenean lerrotatuek (ik. EG 200), eta alaitasuneko, laneko eta familiaritasuneko giroan gauzatzen direnek, zaurgarrienei laguntzeko xedea dute. Proiektu horien bidez, parte-hartzaileek hiru helburu erdiestea da nahimena: lehena, norberaren duintasunaren kontzientzia garatzea; bigarrena, pixkana-pixkana autonomo izatea; eta, azkena, mundua eraldatzeko erantzukizuna hartzea.

Pampuroko eta Bodratoko etxeetan (Mornese) gauzatu zen Maria Mazzarellok eta haren kideek Karisma salestarrari egin zioten jatorrizko ekarpena. 150 urte geroago, horrek

honako komunitate eta proiektu hauetan dirau: Laura Vicuña Familia-Etxea (Caldas de Reis), Llar Les Vinyes (Cerdanyola del Vallés), Marbellako Maria Laguntzailearen Gizarte eta Hezkuntza Formaziorako eta Arretarako Zentroa, Metas de León gizarte- eta lan-proiektua, Cemain formazio-zentroa (Kanariak), Sueños gizarte- eta hezkuntza-proiektua (Valdepeñas), Sin Mugas aisialdiko zentroa (Zaragoza) eta beste hogeit etxetako hainbat proiektutan. 150 urteko historia, beti zaurgarrienen ondoan, eta etorkizunari ausardiaz begiratuz. ■

**ZENBAKITAN**

- 5 gizarte-erakunde
- 27 etxetan parte-hartzea
- 75 proiektu
- 10 Autonomia Erkidego
- 600 hezitzaile
- 9.500 hartzaile

## Hezitzaile salestarra izatea bizi-aukera bat da

**O**raindik ere maitasun handiz gogoratzen dut salestarren etxe batera hurbildu nintzen lehen aldia: lanpostua aurkitu berri nuen Familia Etxe batean. **Don Bosco** eta **Maria Laguntzailea** ezagunak zitzaizkidan, baina ez nekien gehiegi ere haiei buruz.

Une hartan hasi zen bizi-ibilbide bat; gaur egun, 14 urte geroago, ahizpa salestarren eskutik jarraitzen duenak. Haiekin batera, egunero bizi ditut karisma eta hazkuntza espiritualak; ez Etxean soilik, baita Familia Salestarraren Don Bosco Etxeen taldeko kide naizenez ere.

Niretzat, lana baino askoz ere gehiago da: Jainkoak bidean jarri didan misioa, konpromisoa eta bokazioa. Don Boscok Valdoccon hasitako ametsarekin jarraitzeko, egunero zaurgarrienak diren haurrengandik hurbil egon nadin, eta nire denbora eta bizitza behar larrienak dituzten gazteei eskaini diezazkiedan.

Karisma salestarrarekin bat egiteak bizitza aldatu zidan, eta gaur egun nire zeregina haur horien bihotzak eraldatzen jarraitzea da; betiere laguntza oinarri izanik, kristauaren begiradatik, eta gure Ama Laguntzailearen eskutik.

José Alberto García, Mornese Etxe Egoitzako zuzendaria, Jerez

EL ESCALÓN SALESIANO GAZTE ELKARTEA (SEVILLA). ARGAZKIA: KIKO HURTADO



## Gazteak ebanjelizatzen dituzten beste gazte batzuk

### ZENBAKITAN

- 40 Otoizleku-Gazteen Zentro
- 10 Autonomia Erkidego
- 600 animatzaile
- 3.660 parte-hartzaile

Aisialdia gero eta gehiago balioesten da gure gizartean. Aisialdiaren kultura berria dela-eta, gazteek haien gogoia asebetetzeko eta norberaren nortasuna adierazteko aukeratzat dute aisialdia.

Gure sortzaile **D. Boscoren** eta **M. Mazzarelloren** hezkuntza-esperientzian oinarrituta (haiek festa-egunetako otoizlekuak abiarazi zituzten), salestarren gazte-pastoralta osatzen dugunok Gazte Etxeen aldeko apustua egin dugu, aisialdiri lotutako hezkuntza integralerako benetako plataforma gisa. Auzokide guztientzat zabalik daude, eta bertan gazteen interesekoak diren hezkuntza ez-formaleko,

ebanjelizioko eta gizarte-ekintzako proiektuak garatzen dira, bai eta beren hazkunde pertsonalaren garapenean zerikusia izan dezaketenak ere. Hori guztia, sarean egiten dugu gazteekin eta gazteentzat lan egiten duten lagunekin.

Aisialdiko gure hezkuntza-proposamena integrala, inklusiboa, aktiboa eta ebanjelizatzailea da; eta bizitzaren ikuspegi kristauan oinarritzen da. Hezkuntza ofizialak bezala, xede zehatza du eta helburu jakin batzuk erdiesteko jomuga; horrexegatik, ezarrita dauzka balio-proposamen bat, ibilbide mailakatu bat, eta gazteek barneratzea nahi diren balio horiek guztiak oinarri izanik eraturako pastoraltzako hezkuntza-komunitate bat (gazteak, animatzaileak, helduak eta salestarrak hartzen ditu barne).

Gazteen protagonismoa indartzeko, haur, nerabe eta gazte bakoitza aisialdiko gure proposamen pastoralaren muinean dago; eta horretarako parte-hartzaile bakoitza bere barne-hazkundera eta hezkuntza- eta ebanjelizazio-proiektuaren animazioan konprometitzen da. Horrek eguneroko bizipenak proposamen eta balio kristauetatik abiatuta interpretatzen eta argitzen laguntzen die.

Hortaz, gure aisialdiko proposamena, norberaren hazkunderako eta konpromisorako gunea da, betiere gazteen askotariko hizkuntzak eta adierazpenak baliatuta (musika, antzerkia, kirola, mundu digitala...). Gurea harrera egiteko gunea da, ateak guztientzat zabalik dituen, eta erreferentziako lekua nerabe eta gazteentzat. ■

## Laguntzea, entzutea eta proposatzea

Hezkuntza-aisialdia edozein adineko eta errealitate pertsonaleko haur eta gazteei laguntzeko gune pribilegiatua dela sinetsita nago. Denbora libre gutxi izaten dugu beti, baina ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen naiz ni. Itxuraz garrantzirik ez duten xehetasun edo une txikietatik abiatuta, pertsona bakoitzarekin eraiki dezakedan harremana gustuko dut.

Ingurukoei horren zaila zen azterketaren inguruan edo igandeko partidari buruz galdetzen diedanean, edo ligako sailkapenari buruz mintzatzen garenean, edo ileko metxa berriek ezin hobeto ematen dietela esaten diedanean, konfiantza-harremana eratzen dugu pixkana. Horri esker, "persona bakoitzaren alderdirik onenera heltzeko heldulekua" aurkitu daiteke, haiei

laguntzeko, entzuteko eta proposamenak egiteko. Hezkuntzan lotura afektiboa biziki garrantzitsua da; izan ere, guztiek sentitu beharko lukete diren hori izate hutsagatik dutela balioa eta kontuan hartzen dituztela.

Neskatoa nintzenez antzeko zerbait bizi izan nuen gazte-zentroan: kontuan hartzen ninduten nerau izate hutsagatik, ez zegoen inposaketarik, ez eta egiteko bide bakarrik ere; eta horixe bera transmititzea gustatzen zait gaur egun.

Beharrezkotzat jotzen dut hezitzaileentzako prestakuntza onaren alde egitea, gure gazte-zentroetara ezin alaiago etortzen diren neska-mutilen laguntzaile onak izan gaitezten.

**Elsa Franco, fma, Sant Andreu Gazte Zentroko arduraduna, Bartzelona**





## ... Beren itzala utzi dute bihotzean eta bidean

Gure Institutuak bost urte eskas behar izan zituen misiolari-ametsa abiarazteko. 1877ko azaroaren 14an lehenengo sei misiolariak Ameriketarantz abiatu ziren: Uruguain izan ziren lehenengo eta Argentinan gero. Ordutik, misiolari-grina bost kontinenteetan hedatu da; gure misioa, horrenbestez, kulturartekotasunera eta erlijio-aniztasunera zabalik dauden askotariko hezkuntza-giroetan garatzen da.

Afrika Proiektuaren testuinguruan, errealtate horri erantzun zehatza emateko, bai eta gazteen premiari erantzuteko ere, Espainiako gure gaur egungo hiru GGKEak sortu genituen: Madreselva, Videsur eta Vides. Horiek sareko lankidetzan dihardute nazioarteko Vides Internazionale erakundearekin eta IIMA (Istituto Internazionale Maria Ausiliatrice) Giza eskubi-deen Bulegoarekin. Azken hori, 2008tik, organo aholku-emailea da NBEko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan.

Gure GGKEen nortasuna tokiko eta nazioarteko boluntariotza sustatzea da; hau da, gizarte-konpromisoa esker onari lehentasuna emateko bizi-aukeratzen duten pertsonak prestatzea. Mundua aldatzeko erabil dezakegun armarik boteretsuena hezkuntza dela sinetsita gaudelako, lehentasuna ematen diegu Haurrei laguntzeko Programei, bai eta Bekei eta Haurrak Babesean Hartzeko Programei ere; eta Garapenerako Hezkuntza eta Gizarte-sentsibilizazioa sustatzen ditugu, baita Giza Eskubi-deen defentsarako formazioa ere. Azken alor horretan, Nazioarteko Lankidetzaren bidez,

indar handia egiten dugu, batik bat, herrialde pobretuenen edo garapen-bidean direnen hezkuntzarako eskubidearen alde.

Utopia zeruertzean dago... Orduan, zertarako balio du utopiak? Haranzko bidea egiteko, horretarako balio du. ■

### Boluntarioa izatea nire bizitza da

17 urte nituela banekien nazioarteko boluntariotza egitera joan nahi nuela; lagunek, hezitzaileek eta beste zenbaitek zergatik galdetzen zidaten, eta zein lekutara joan nahiko nukeen, baina orduan ez nintzen gai galdera horiei erantzuteko.

Paraguain egin nuen lehen boluntariotzak argitu zizkidan erantzunak. Harrera-etxean bizi zen neskato batek honako hau galdetu zidan: "Atsegin ematen al du hemen gurekin egoteak?". Egin zidan galdera ulertu ez nuelako, hau gaineratu zuen: "Esan nahi dudana da boluntarioek hilabete ematen dutela hemen gurekin jolasten, baina gero, alde egin ondoren, ez direla inoiz itzultzen". Hori entzunda, ezin nezakeen onartu neska horiek berriz ere abandonatu zituztela sentitzea. Eta horregatik, beste lau aldiz itzuli nintzen bertara Madreselva GGKEko boluntario gisa. Paraguai orain nire etxea da. Han daude nire amak, izebak, ahizpak eta alabak, eta haiekin egunero hitz egiten dut; ahal dudan guztietan itzultzen naiz haiengana. Kariñoa eta estimua ez ezik, maitasuna eta erantzukizuna dira neskato eta neska horienegatik sentitzen ditudanak.

2018an, Jainkoak nire norabidea aldatu zuen eta Kenya bihurtu zuen nire boluntariotzaren helmuga berria. Han ulertu nuen zer den maiteminduta egotea; izan ere, nire bihotzak bertan egon behar zuela sentitu zuen. Guztiok gure baitan sinesmen eta desira berberak ditugula ulertarazi zidaten pertsonak ezagutu nituen. Ametsez, musikaz eta ahaleginez jositako lekua da. Boluntarioa izatea nire bizitza da. Jendearekin egotea, partekatzea eta bizitzea; besteak zoriontsu ikustea; une zailetan laguntzea; eta haurrak eta gazteak hazten eta heltzen ikustea. Eta, batik bat, haiekin amets egitea.

Lola Teja, boluntarioa Madreselva Fundazioan

#### GGKE



#### ZENBAKITAN

- 3 GGKE
- Haurrak babesean hartzea / Haurrei laguntzeko programak: **31 herrialdetan**
- Lankidetzako Proiektuak: **21 herrialdetan**
- Boluntarioak nazioartean: **20 herrialdetan**

# Sormen salestarra, auzoz auzo

Mateo González Alonso

**B**ost izan ziren 1967ko abuztuaren hasieran Bartzelonako Terrassa hirira iritsi ziren Maria Laguntzailearen lehenengo alabak. Beren lehen misioa udal-haurtzaindegi bat izan zen. Haien lana esanguratsua baitzen, laster egin ziren ezagunak La Maurina auzoan (ehungintza-sektoreari lotutako langile-errebala zen orduan, eta immigrantei harrera egiten ziena). Izan ere, haurren zaintzaz arduratzeaz gain, berehala ekin zioten Espainia osotik lan hobearen bila iritsitakoentzat alfabetatze-eskolak emateari.

Salestarrek auzoan izandako presentziaren iraganari eta gaur egunari erreparatuta, honako hau adierazi du Etxeko zuzendari Raquel Noaín salestarrak: “Gure presentzia salestarra oso errotuta egon da beti auzo honetan, gure nortasunari fidel izanik; pertsona guztiak hartzea, integratzea, zubiak eraikitzea, eta garatzeko bideak sortzea. Hori guztia, pertsonen arteko desberdintasunak gaindituta; izan ere, elkar aberasteko aukera dira”.

Maria Laguntzailea Fundazioak auzo

honen beharrei etengabe erantzun izan die. Egun, 41 nazionalitatetako 1.225 pertsonari laguntzen die bi proiektu handiren bidez: *Pam a pam* eta *El Viver*. Lehenengoa, arratsaldez egiten da, eta parte-hartzaileek gaztelaniaz eta katalanez ikasten dute, edo gidabaimena lortzeko trebatzen dira, esaterako. Eta, bigarrenak, egun osoan zehar hainbat zerbitzu ematen ditu: arreta pertsonalizatua; lanpostuak lortzeko lantegiak eta formazio-ikastaroak; gizarte- eta heziketa-laguntza emateko, haurren eta nerabeen ikasketa-errefortzua; emakumeak ahalduzko talde-bilerak; lan-orientazioa eta lan-munduan sartzea; eta sentsibilizazioa.

Fundazioaren garrantziaren erakusgarri da “Insieme” sozietate mugatua, ahizpa salestarrek lan duinaren berme guztiekin sortu zuten ehungintza-enpresa. Aipagarria da, halaber, pandemiaren ondorioz, prestatutako janaria banatzeko proiektu bat berrabiatu izana, etxebizitzarik ez duten edo etxebizitza duinak izateko gutxieneko baldintzak betetzen

ez dituztenetan bizi diren gazteei eta familiei laguntzeko. Proiektua ekinarazi zutenetik, 17.000 lote entregatu dituzte.

## BIGARREN ETXE BAT

Ordezkaritza honetako Fundazioko zuzendariak, Isabel Fernándezek, azaldu duenaren arabera, proiektu horiek denboran zehar auzokideen profilaria egokitu zai-zkio, eta nabarmentzekoa da boluntarioen garrantzia; “horietako batzuk bere garaian proiektuetako parte-hartzaile izandakoak dira”. Noaínek, berriz, azpimarratu du proiektuaren izaera salestarrak egiten duen ekarpen azpimarragarriena “harremanaren estiloa” dela, “pertsona bakoitzak behar duen denbora ez neurtzea”, alegia. Eta, horregatik, Fundazioan “bigarren etxea” aurkitu duela entzuten dio egunero jendeari. Haren ustez, nabarmentzekoa da “zortzi salestarrez osatutako komunitateak atek zabalik dituela beti, guztiok hartzeko prest”.

Hastapenetako haurtzaindegi hura gaur egungo Maria Laguntzailea ikastetxea da. Erakunde horretako zuzendari **Toni Lázaro**k honako helburu hau dauka: “Modu positiboan haztea, aniztasunaren askotariko koloreen ilusioz blai eta begirada egungo munduaren gaitasunetan jarrita”. Zentroan “emozioa bizitzeko oinarritzko gaitasuna da”; eta harrera, elkartasuna, etorkizun zalantzagarriaren aurreko itxaropena, autonomia edo erresilientzia bezalako balio salestarretan nabari da.

Nortasun salestarreko beste zenbait alderdi bezala, aisialdiak hasiera-hasieratik izan zuen leku berezia: ahizpek otoizleku bat abiarazi zuten. Tradizio horren oinordekoa Preju Sarau Gazte Elkarte da. Horren presidente **Alejandro Expósito**ren iritziz, salestarrek proiektu horrekin “etxe bat eskaini nahi izan diete parte-hartzaileei babestuta senti daitezen, beren buruak askatasunez adieraz ditzaten, eta aisialdian zailtasun sozialetatik eta ekonomikoetatik alden daitezen, kalitatezko hezkuntzako giroan”. Asmo hori askotariko moldeetan gauzatzen da: asteburuetako jarduerak, kanpamentuak eta udalekuak, eta “Iratzargailua” izeneko eguneroko proiektua. ■

EL VIVER PROIEKTUA - MARIA LAGUNTZAILEA FUNDAZIOA - TERRASSA. ARGAZKIA: AGUSTÍ CODINACH







# “Gure karisma erakargarria izango bada, guk geuk bizi beharko dugu”

Espainiako  
Salestarren  
Ikuskatzailea

Charo  
**TEN SORIANO**

Testua: R. Cruz. Argazkia: Jesús G. Feria

**M**aría Rosario Ten Soriano (Burjassot, Valentzia, 1964) Espainiako Salestarren ikuskatzaile berria da, martxoaren 1etik. Valentziako erlijiosoak bere gain hartu du zeregin hau, joan den urrian aurreko probintziala bikario nagusi izendatu baitzuten. Bizitza osoa gazte-pastoraltzari eman ondoren, erronka berri honi baretasunez ekin dio; izan ere, badaki “benetako Nagusia Ama Birjina” dela, **Ama Mazzarellok** idatzi zuen bezala.

**Institutua sortu zela 150 urte igaro dira, zer alderditan dago ikusgai gaur egun Ama Mazzarellok utzitako ondarea?**

Institutuaren nazioarteko errealitatea ezagutzen duzunean jabetzen zara nola ari gatzazkion gure munduari laguntzen. Gure Institutuaren sortzaileak jada berritzaileak izan ziren uneko beharrei erantzuteko egiteko moduak eta hizkuntzak eraldatu baitzituzten. Gaur egun, gazteei hezkuntza integrala emateko asmoan, eta haiek beren bizitzak eraiki ahal ditzaten eta gizartearen eraldatzaile izan daitezen ahalduntzekoan tematuta jarraitzen dugu. Betiere bidea haiekin batera egiten. Zeregin hori gauzatzeko oso kontuan dugu duela 150 urte abiatu zen ondarea.

**Karisma ez da estatikoa, garaien ezaugarrietara egokitzen baita. Zerk iraurarazten du karisma erakargarri? Gure karisma oso bizia da, gaztetasuna izaera bizikoa delako. Guk protagonismoa gazteei ematen diegu, eta haiengan konfiantza dugu. Guztiok dugu argi helburua zein den: Jesusen iragarpena. Baina bitartekoek gaur egungoak izan behar dute, eta erabilitako hizkuntzak gauden tokiko errealitateari egokitu behar zaizkio. Zerk egiten du karisma erakargarri neska gazte batentzat? Guk geuk bizitzea. Neskatok honako hau galdetu**

behar diote beren buruari: ba al dut nik, emakume horiek bezala, horrenbeste gogobetetzen nauen ezer?

**Nahiz eta salestarrena kide gehien dituen emakumekongregazioa den, bokazioen kopuruak behera egin du. Ezin gara atsekabetu. Ni oso zoriontsua naiz, eta nahiko nuke ni bezain zoriontsu izan nahi duten gazteak baleude. Gure Institutua misio globala duen etxe erraldoia da. Europan ez dago garai batean bezainbesteko bokaziorik, baina bere buruari galdetzen dion gazte kopuru batek bere horretan irauten du. Beste zenbait herrialdetan, ordea, bokazioak loratzen ari dira. Horri lotuta, gogoeta egin behar dugu, eta erabaki komenigarria litzatekeen bizitza besteekin gehiagotan partekatzea, gure bizitza ikaslaraztea edo komunikabideetan maizago agertzea, besteak beste. Ikus gaitzaten, baliteke egokia izatea gaur egun salestarrok partaidetzarik ez dugun foroetan egotea. Konfiantza handia diet gazteei, berezkoa baitute boluntarioria eta besteei laguntzea. Guk egin dezakegun gauza bakarra gure bizitza asebetetzen duen hori haiekin partekatzea da, eta, gure testigantza bidez, beren buruari galdetu diezaioten bultzatzea; gainerakoa Jainkoak egingo du.**

**Aita Santuak bisitatu zintuzten duela gutxi izan zenuten Kapitulu Orokorrean, eta “itxaropen-emakumeak” izateko eskatu zizuen. Gerra- eta pandemia-garaian, nola gauzatu daiteke eskari hori?**

Itxaropen-emakume izateko, asko laguntzen digu otoitzak, hauskortasuna jendearekin partekatzea, eta, guztion artean, gizatasun berria eraikitzea. Jesusen ezartzen ditu eman beharreko pausoak. Heriotzak eta gerrak gainjartzen diren arren, badaude itxaropen-zantzuak. Itxaropen-emakumea naiz, eta horixe adierazten saiatzen naiz. ■



## Gutuna... Phnom Penh-tik (Kanbodia)

Adiskide maitea:

Kanbodian egunero goiz zabaltzen da eguna, eta eguzki laranja ederreko argiak bizitza esnarazten du. Kanbodia amaiezina da, eta gauza miragarritz josita dago. Batez ere, bertako jendea da miragarria: pertsona alaiak, borrokalaria eta erresilienteak. Hemen guztia da berezia. Duela 11 urte bizi dut nire misiolari-bokazio saiestarra munduko leku honetan, eta egunero aurkitzen ditut erronka berriak eta azaltzen zaila den zoriontasun sakona.

Karisma saiestarra duela 30 urte soilik heldu zen Kanbodiara lehen ahizpen eskutik, baina erro saiestarrak fruituak ematen ari dira herrialde honetan (biztanle gehienak budistak dira eta kristautasunera pertsona gutxi bihurtzen da); harro sentiarazten nau heziketaren bidez ebanjelizatzen dugulako eta ebanjelizazioaren bidez heziketa ematen dugulako lekuko izateak. Hezitzaile gisa, hainbat arrazoi direla medio (pobrezia, abandonua, abusua) gure etxeetara iritsi diren neskatoei eta nerabeei laguntzeko oparia egin didate. Laguntza horri esker, modu integralean hazteko aukera izan dute. Batzuek jada beren familiak osatu dituzte, eta haiek eta beste zenbait nola gizarteratu diren ikusteak (bai eta erantzukizun-lanpostuetan ere), hezkuntzak bizitzak aldatzeko gaitasuna duela erakusten du.

Nire gutuna irakurri izana eskertzen dizuet; gure burua doakotasunez emateak zoriontsu biziartzten gaitu.

Gema Extremo, fma



## Gutuna... Tenerifetik

Gazte maitea:

Gaur zurekin partekatu nahi dut nire bizitzako dohainik preziatuena... nire **bokazioa**.

**Alma** dut izena, 33 urte dauzkat, eta saiestarra naiz duela bost urte. Gaur egun Tenerifeko Etxe Eskolan bizi naiz, eta bertan lehen hezkuntzako irakaslea eta pastoraltzako koordinatzailea naiz.

**Don Boscok** esan ohi zuen hezkuntza bihotz-kontua dela, eta egia hori nire hezkuntza-lanean bizi dut.

Goizero, patio hauek horrenbeste haurren eta gazteren alaitasunez eta zalapartaz betetzen direnean, haiek nire bizitzako pasioa direla sentitzen dut, Jainkoak fidatu didan altxorrik preziatuena, alegia. Haiekin egoten naizen aldirio Jainkoak dien baldintzarik gabeko maitasunaren isla izan dadin saiatzen naiz.

Misio hau ez da beti erraza izaten, baina ziur naiz benetan merezi duela; haien alde lan egiten dut, eta haien alde bizia emateko prest nago.

Zeregin honetan ez nago bakarrik, nire ahizpen laguntza, eta egun batean arreta nigan jarri zuen Haren fideltasuna baitauzkat. Bihotz handiarekin eta eskuzabalarekin aurrera egiteko eskatzen dit egunero, norberaren burua besteei emateak merezi duelako.

Alma Martel, fma





# Zuri fidatzen dizkizut

*Adierazi nahi dut Ama Birjina benetan dagoela hemen; hementxe bertan, zuen artean!  
Ama Birjina etxe honetan paseatzen da, eta bere mantuarekin babesten du. (Don Bosco).*

Joan Boscok 9 urte zituela izan zuen amets hartan, Mariak “eskuetatik ontasunez eutsi zion”. Orduz geroztik, eta bizitzako azken egunetaraino, “Hark egin du guztia” errepikatzen zuen: Don Boscok ez zuen sekula esku hura utzi.

Guk ere Mariaren presentzia diskretu eta zehatz hori aurkitu behar dugu gure bizitzan. Haren betiereko mantuarekin babesten gaitu, guztiok hartzen gaitu; haur eta gazteek leku berezia dute bertan. Jainkoak hezkuntzako misioa gure eskuetan uzten jarraitzen du: “Zuri fidatzen dizkizut” esan zion Ama Mazzarellori Mariaren bitartez, eta horixe bera esaten dizu gaur egun zuri ere.

Egin ezazu geldialdi bat zure bizitzan, sentitu Jainkoaren presentzia,  
eta bihotzaren isiltasunean honako hau errepikatu ezazu:  
“Zure deia sentitzen dut, eta zutaz fidatzen naiz”.

- Begiratu arretaz irudiari, begiets ezazu. Erreparatu xehetasun bakoitzari. Mariak bere mantuaz babesten ditu Jesus semea, eta haurrak eta gazteak, baita zu ere..
- Utz iezaezu aurpegi haiei galdetu diezazuten, imajinatu itzazu haien istorioak, haien irrikak eta beldurrak, betetzeko dituzten ametsak...
- Zer adierazten dizute? Zer espero dute zuregandik? Fidatu dizkizuten haurren eta gazteen izenak jar iezazkiezu... Kontatu Mariari haien istorioak eta ama batek seme-alabak zaintzeko beharrezkoa duena.
- Intimitateko une batean, Ama Birjina Laguntzaileari eska iezaiozu haien alde egin dezan. Ez ezazu presarik izan. Utz itzazu haien izenak Mariaren mantuarekin, Mariaren begiradapean...

## Azken otoitza

Maria, honako agindu hau eman zenion Ama Mazzarellori: “Zuri fidatzen dizkizut”, eta horrek durundi egiten du oraindik gure bihotzetan.

Zuk erakusten diguzu babesla ematen eta Jesusengana hurbiltzen duen presentzia diskretua eta zehatza, arretatsua eta sormenezkoa, izaten.

Maria Laguntzailea, zure mantuarekin eta begiradapean fidatzen ditut munduko haurrak eta gazteak, batik bat, Jaunak niri fidatu dizkidanak.

Izan zaitetz zu une oro haien babeslea, eta haien alde ager zaitetz zure seme Jesusen aurrean, Jainkoak guztiontzat amesten duen munduaren gero eta antzekoagoa eraikitzeko konpromisoan aurrera egiten jarraitu dezaten.







**MARIA LAGUNTZAILEAREN ESPIRITUALTASUN ETXEA.** Gogarte-etxea, bizikidetzak, erretiroak, gazte-aterpetxea.  
C/ Virgen de Iciar, 4, 28220 Majadahonda (Madrid)  
Email: [cespiritualidadelplatio@salesianas.org](mailto:cespiritualidadelplatio@salesianas.org) Tel.: 608459812

## Elkarrekin bila

Batzuetan, gure bizitzako liburuko orriak klabean idatzita baleude bezala sentitzen gara. Zentzurik eta ordenarik gabeko hitzak dira, eta kosta egiten zaigu haien irakurketa egitea. Hemen gaude zurekin irakurtzeko, zure istorioaren eta errealitatearen irakurketa fededuna egiten laguntzeko, eta hori zilegi egiteko tresnak emateko; betiere askatasunean eta errespetuan oinarrituta, eta Jainkoa gure bizitzetan dagoelako eta presente egiten delako jakitun izanik. Horretarako zenbait baliabide eskainiko dizkizugu.

### LAGUNTZA, AURREZ AURRE ETA ON-LINE

Erlijosok eta sekularrek osatutako pertsona talde bat dugu, laguntza ematen trebatu dena, eta zuri entzuteko eta zurekin bidea egiteko prest dago.

### BORGOALTO PROIEKTUA

Laguntza emateko proposamen sistematikoa da, Kristorekin topaketa sakonagoaren bitartez zure fedea indartu dezazun. Horretarako, baliabideak eskainiko dizkizugu, Jainkoak zuretzako duen proiektua aurkitu dezazun, eta horri erantzuna eman diezaiozun.

### BIZITZA KOMUNITARIOAREN ETA MISIOAREN ESPERIENTZIA

Laguntza-prozesuaren amaieran, Jainkoak karisma salestarraren bidez dei egin dizula ohartuz gero, bizitza kontsokratua bertatik bertara ezagutzea proposatzen dizugu. Denbora batez komunitate salestar batean bizitzeko aukera izango duzu, eta gure bizitzan eta misioan zuzenean parte hartzekoa.



**Informazio gehiago izateko:**

[vocacional@salesianas.org](mailto:vocacional@salesianas.org)



[@salesianas\\_on\\_the\\_way](https://www.instagram.com/salesianas_on_the_way)

MARIA LAGUNTZAILEAREN IKUSKATZAILAZA • ESPAINIAKO SALESTARRAK • MARIA LAGUNTZAILEAREN ALABAK

C/ Villaamil, 18 28039 Madrid

[www.salesianas.org](http://www.salesianas.org)

[@SalesianasEs](https://www.twitter.com/SalesianasEs)

[@SalesianasES](https://www.facebook.com/SalesianasES)

[Salesianas España](https://www.youtube.com/SalesianasEspana)